

ELKARBIZITZA ARAUDIA



Lehen Hezkuntza

2016ko irailaren 1etik aurrera indarrean dagoen araudia.(2024ko Irailean eguneratua)

AURKIBIDEA

0.- SARRERA.....	3
1. IKASLEEN ESKUBIDEAK	4
1.1.- HEZIKETA INTEGRAL BATEN ESKUBIDEA	4
1.2.- ESKOLA OREKATZAILE BATEN ESKUBIDEA	7
1.3.- PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA.....	8
2. IKASLEEN BETEBEHARRAK.....	8
2.1.- GAINERAKOEN ESKUBIDE-JARDUNA ERRESPETATZEKO BETEBEHARRA	8
2.2.- IKASTEKO BETEBEHARRA	9
3. ELKARBIZITZA ARAUAK	9
3.1.-PUNTUALTASUNA ESKOLETARA ETA IKASTETXEAREN HEZIKETA EKITALDIETARA ETORTZERAKOAN.....	10
3.2.- ESKOLARA ETORTZEA.	10
3.3.- IRAKASLEEI ETA IKASTETXEKO LANGILEEI ERRESPETUA.	11
3.4.- IKASKIDEEI ERRESPETUA:.....	11
3.5.- IKASTETXEKO EDO IKASKIDEEN MATERIALARI ERRESPETUA:.....	12
3.6.- JABETZARI ERRESPETUA.....	13
3.7.- LANGIROA.....	13
3.8.- OSASUNAREN ZAINZA.....	14
4. GELATIK EGOZTEA.....	14
5. HEZIKETA-NEURRI ZUZENTZAILEAK.....	15
6. ESKOLAKO JANGELAREN ERABILERA.....	18
7. FUNTZIONAMENDU OROKORRERAKO ERANSKINAK.....	20
8.ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAKO ELKARBIZITZA ARAUAK	23

0.- SARRERA

Arautegi hau, “Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe ez unibertsitarioetako ikasleen eskubide eta betebeharrei” buruzko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren markoaren barruan (EHAA 240. zenb. – 2008ko abenduaren 16an) ulertu eta aplikatu behar da, eta gure Ikastetxeko Heziketa Proiektuan jasota dago, **Jesusen Lagundiaren Ikastetxeetako Misioaren eta Ikuspenaren** espirituarekin.

MISIOA

- ✓ Gure Ikastetxea, **Heziketa Zentro** kontzertatua da, denei irekia, **Loiolako Ignazioaren** Jainkoaren, munduaren eta gizakiaren esperientzian inspiratua, Jainkoaren Maitasunaren eta pertsonen arteko Maitasunaren **Berri Ona aldarrikatzeaz** konprometiturik.
- ✓ Gure asmoa da, **gure lanaren xede diren gure ikasleak**, pertsona orekatuak izan daitezela: intelektualki beren ahalmenen arabera prestatuak, haztera irekiak, besteen zerbitzuan eta gizarteak planteatzen dizkien erronkei aurre egiteko gai direnak.
- ✓ Heziketa lan hau familiekin eta gizartearekin partekatzen dugu, Euskal Herriaren eta bere kultura eta hizkuntzaren testuinguru zehatzean.
- ✓ Gure kudeaketa, erantzukidetasunean eta etengabeko hobekuntzan oinarritzen da eta, horretarako, **langile jende kualifikatua eta etengabeko prestakuntzan daukagu**, baliabide egokiekin.

IKUSPENA

- ✓ Ikastetxe **finkatua** izatea, bere esperientzia historikoagatik eta Ignaziotar oinordetzagatik gure herriaren errealitate kultural, sozial eta politikoarekin **konprometitua** dagoena.
- ✓ **Irekia** eta topalekua dena, eta **elkarrizketa eraikitzailea** duena.
- ✓ **Konfiantza** ematen duena, bere:
 1. **Akademia bikaintasunagatik**:
 - Pedagogian berritzailea
 - Bakoitzaren ahalmenen garapenean zorrotza eta laguntzailea -
Ikasle eleaniztunen sustatzailea
 2. **Kudeaketa eraginkorragatik**, ondorengo hauetan oinarritzen baita: -
erantzukidetasunean
 - prozesu eta baliabide desberdinen etengabeko hobekuntza
 - finantzabide orekatuaren bilaketa
- ✓ Besteei **boluntarioritza eta zerbitzu esperientziak** ematen jarraitzen duena, pastoralgintzan, kulturean, aisialdian eta kirol jardueretan.

Arautegi honek, beraz, gizarte demokratikoak bereak dituen askatasuna, errespetua, tolerantzia, integrazioa, partehartzea eta kritika ahalmena sustatu behar ditu. Baina baita, norbere gaitasunak garatzeko erantzukizuna eta besteen zerbitzuan jartzeko ahalmena ere.

Dokumentu honetako arauak, adierazitako printzipioen zehaztapen praktikoa eta proposatutako helburuak lortzeko laguntza eraginkorra izatea nahi da.

Lehen hezitzaileak gurasoak direla aintzat hartuz eta lan horretan gu haien lankide garela, arrazoi horregatik, arautegia ezartzerakoan informatuta egon behar dute (arautegia dagoela adieraziz, jokatzeko moduz informatuz...) betetzeko moduei dagokienez, betebeharrak urraketak gertatzen direnean beren seme-alaben jokabidearen aldetik.

Neurri zuzentzaileak ahal den eperik laburrenean aplikatu behar dira, bere helburua hezitzailea delarik funtsean, nola jokabide ezegokiaren erantzule den ikaslearentzat, hala gainerako ikasleentzat.

Ezinbestekoa da gurasoek neurri zuzentzaileak berresten laguntzea, gure lehen heziketa lana oztopatzen duten ikasleen oinarrizko gaitasun sozialak eta herritar mailakoak lortzeko.

Ikasle guztiek dute, arautegi horretan aitortzen diren balioak eta printzipioak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra, eta baita berrietan prestatzekoa ere.

Ikasleak beren eskubideez baliatuko dira, beren betebeharren eta heziketa elkarteko gainerako kideen eskubideen aitortzaren eta errespetuaren kaltetan izan gabe.

Zuzentzekoak izan daitezkeen jokabideak, heziketa elkarte osoak ezagutzea bermatze aldera, ikasturte bakoitzaren hasieran, tutoretzaren bidez, ikasle guztiei gogoraraziko zaie dokumentu honen edukia, eta baita beren gurasoei edo legezko ordezkariari ere.

1. Alabaina, adina eta hezkuntza maila aintzat hartuz, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloaren amaierara bitartean, Dekretu honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, jokabide ezegokitzat hartuko da soilik, inolako prozedura formalen menpe jarri gabe irakasleek zuzenduko dutena.
2. Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera Ikastetxeek, izaera ezohikoan eta hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren baimenez, Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako diren edo larriki kaltetzen duten jokabideei dagokienez, era orokorrean ezarria dagoena aplikatu ahal izango dute, berorren aplikazioa derrigorrezkoa delarik 14 urtetik aurrera.

1. IKASLEEN ESKUBIDEAK

1.1.- HEZIKETA INTEGRAL BATEN ESKUBIDEA

Legedia ezagutzeko eskubidea eta betebeharra

Ikasle guztiek dute, beren adinak baimentzen duen neurrian, indarrean dagoen legedian onartutako balioak eta printzipioak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra, eta baita horietan prestatzekoa ere...

1.- Beren **nortasunaren garapen osoa lortzen lagunduko dien prestakuntzaren eskubidea.**

Gehiegi ez luzatzeko, eskubide honek esan nahi duenaren zenbait adibide aipatzen dira:

- Eskubideen eta askatasunen errespetuan eta tolerantzia-jardunean prestatu.

- Ezagutzak, ohitura intelektualak eta lan-teknikak eskuratzea.
- Ikasleen aldetik beren kultur nortasunaren aurkikuntza, Euskal Herriko kide gisa.
- Bakerako, Askatasunerako eta herrien arteko lankidetzeta eta solidaritate ideien sustapenerako prestakuntza.
- Afektibitatea, norbere autonomia, auto-estimua eta besteekin harremanak izateko ahalmenaren garapen harmonikoa.
- Heziketa-kalitatearen hobekuntzan parte hartzea.

2.- Ikasleek eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aitortuak eta baloratuak izan daitezten.

- **ZUZENDUTAKO LANAK, PROBAK ETA ARIKETAK BERRIKUSTEA**

- Ikasleek, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Behin, ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatutako dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute.
- Ahozko eskabideetan ahozko erantzuna jasoko dute eta, aitzitik, idatzizko eskabideetan idatzizko erantzuna.
- Zuzenketetan ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa jartzea. Egindako akatsak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da.

- **ARIKETA ZEHATZEI JARRITAKO KALIFIKAZIOEN AURREAN ERREKLAMAZIOAK EGITEA**

- Kalifikazioak jaso eta, bi eskola-egun izango dute ahoz aurkezteko alegazioak eta egindako lanak eta frogak berrikusteko. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio eta honek didaktika-departamentuari (arloan bereko irakasleak) aholkua eska diezaioke.

- **EBALUAZIO PARTZIALEN AURREAN ERREKLAMAZIOAK EGITEA**

- Ikasleek, ahoz zein idatziz, irakaslearen aurrean ebaluazio-aldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete. Dagozkion irakasleak erreklamazio guztiei erantzun beharko die, ahoz edo idatziz, jaso duen arabera.
- Erreklamazioa ezesten den kasuetan, ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle bitartez, departamentuaren esku-hartzea eska dezakete. Departamentuak, proposatutako azterketa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita departamentuan erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta erreklamazioa egin duen ikasleari, ahoz edo idatziz –erreklamazioa egin den modu berean– erantzungo dio.

- Ebaluazio partziala gauza arrunta denez, ezin izango da kalifikazioaren aurkako erreklamaziorik egin, nahiz eta irakasleak kalifikazioari eutsi departamentuaren irizpidearen aurka. Hala ere, irizpide hori kontuan hartuko da azken ebaluazioaren aurkako erreklamaziorik eginez gero erabakia hartzeko.
- **KALIFIKAZIOAK JUSTIFIKATZEN DITUZTEN AGIRIAK GORDETZEA**
 - Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.
 - Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita ikasleak edo erreklamatzailerak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.
 - Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen kasuetan.
- **AZKEN KALIFIKAZIOEI BURUZKO ERREKLAMAZIOA**
 - Azken kalifikazioak argitaratu baino lehenago, irakasleek berrikusteko ordua jarriko dute. Irakasleak ikasleei banan-banan jakinaraziko die zein den haien nota. Irakasleak ikasleen adostasunak edo desadostasunak jasoko ditu eta, kalifikazio aurreikusia aldatu edo bere horretan utziko du.
 - Kalifikazioarekin ados ez dauden ikasleek 48 orduko epea izango dute erreklamazioak egiteko, behin kalifikazioak formalki eman diren unetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa egiteko, ikasketaburuari (koordinatzaile pedagogikoari) zuzendutako idatzi bat aurkeztu beharko du idazkaritzan. Irakasleak honako hauek idatzi behar ditu:
 - Irakasleak jarri dion nota eta bere ustez zuzena ez den kalifikazioa; zilegi litzatekeen kalifikazioa, eta ikasleak erreklamazioa egiteko dituen arrazoiak.
 - Irakasleak, halaber, aurreko ariketa zehatzen edo ebaluazio partzialen kalifikazioen aurrean egin ziren eta bere garaian aldeko ebazpena izan ez zuten alegazioak edo erreklamazioak erantsi ahal izango ditu, azken ebaluazioko emaitzan eragina izan badu.
 - Ikasketaburuak (koordinatzaile pedagogikoa) dagokion departamentuari (arlo bereko irakasleak) aurkeztuko dio erreklamazioa. Honek erreklamazioa aztertuko du. Hartara, proposatutako proba, ikasgaiaren programazioarekin bat datorren erabakiko du, baita ebaluazio irizpideak zuzen aplikatu diren ere. Departamentuak erabakiko du irakasleak jarritako kalifikazioarekin ados dagoen ala ez. Kontuan izango ditu ebaluazio partzialetan egindako erreklamazioei buruz bidali diren txostenak.
 - Kontuan izango du erreklamatzaileraren antzerako egoeran dauden ikasleei irakasleak zer kalifikazio jarri dien.

- Ikasleak azken ebaluazioan “gutxi” edo “gutxiegi” kalifikazioa jaso badu, eta haren kontrako erreklamazioa aurkeztu badu, eta ikasleak eskoletan ahoz egindako lanak besterik ez badira hartu nota jartzeko, kalifikazio negatibo hori ezin izango da bere horretan utzi, salbu eta eskoletan ahoz egindako lanei buruzko nahiko informazio bildu bada.
- Departamentuak (arloan bereko irakasleak) bi eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita.
- Departamentuak (arloan bereko irakasleak) bere erabakiaren berri emango dio ikasketaburuari (koordinatzaile pedagogikoari). Honek ikasleari helaraziko dio departamentuaren (arloan bereko irakasleak) erabakia.
- Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketa buruak (koordinatzaile pedagogikoak) haren berri emango dio zuzendariari.
- Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.
- Erreklamazioa onartu ez, eta ikaslea, oraindik ere, erabakiarekin konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri diezaioke zuzendariari eta honek Hezkuntza-administrazioari helaraziko dio, eta Hezkuntza-administrazioak erabaki bat hartu beharko du.

3.- Bere **kontzientzia askatasunaren** eta bere ideologia, erlijio eta etika mailako uste sendoen errespetu eskubidea.

Eskubide hau honako hauen bidez bermatuko da:

- Ikasleei era guztietako manipulazio ideologiko edo propaganda mailakoa saihestuko dien irakaskuntza ematea.
- Ikasleen kritika ahalmena sustatzea.
- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuari buruzko informazioa.

4.- Ikasleen **osotasun fisikoa**, psikikoa eta morala eta bakoitzaren duintasuna errespetatuak izateko eskubidea. Inoiz ez zaie tratu umilgarri edo laidogarririk egingo.

5.- Eskola, bokazio eta lanbide mailako orientazioa jasotzeko eskubidea.

1.2.- ESKOLA OREKATZAILE BATEN ESKUBIDEA

1.- **Irakaskuntza maila desberdinetara iristeko aukera berdinen eskubidea:** Maila ez derrigorrezkoetarako urratsean ez da, bere behar besteko aprobetxamenduarena edo ikasketarako gaitasunari dagokiona beste mugarik izango.

Aukeren berdintasun benetakoa eta eraginkorra bermatzen duten neurri orekatzaileak ezartzea.

2.- Ondorengo arrazoiengatik **ez diskriminatua izateko eskubidea**, jaiotza, arraza, hizkuntza, sexua, ahalbide ekonomikoa, maila soziala, eta politika, moral edo erlijio mailako uste sendoak, edo baita ezintasun, fisiko sensorial edo psikikoak ere, elkarbizitzako arauetara berezia jarritz.

3.- Ikasleek **babes sozialerako eskubidea** dute, hezkuntza eremuan, familia mailako ezbehar edo istripu kasuetan.

1.3.- PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

- 1.- Ikastetxeko funtzionamenduan eta bertako bizitzan, eskola jardueretan eta berorren kudeaketan parte hartzeko eskubidea, indarrean dauden Heziketa Legeen eta geure Arautegiaren arabera.
- 2.- Ikasleek **adierazpen askatasunerako eskubidea** dute, desadostasun adierazpena barne, gertakari akademiko kultural edo sozialetan. Eskubide hau, heziketa Elkarteko kide guztien eskubideen kaltetan izan gabe eta pertsona eta erakunde guztiek merezi duten errespetuarekin erabili behar da.
- 3.- Ikasleak Ikastetxean **biltzeko aukera izango dute**, eskolako edo eskolaz kanpoko jardueretarako, hauek heziketa edo prestakuntza helbururen bat baldin badute. Horretarako, dagokion baimena eskatu beharko dute, jarduera akademikoen garapen normalean eragina izatea saihestu eta ondorioak jasan ditzaketan pertsonak eta instalazioek merezi duten errespetua bermatu.

Parte hartzen duten ikasleen betebeharra da jarduera hauek guztiak errespetu eta eraginkortasun giroan igarotzea.

2. IKASLEEN BETEBEHARRAK

2.1.- GAINERAKOEN ESKUBIDE-JARDUNA ERRESPETATZEKO BETEBEHARRA

Ikasleek, Heziketa Elkarteko gainerako kideen eskubide eta askatasunen jarduna errespetatzeko betebeharra dute.

Betebehar hori honako **eginbehar** hauetan zehazten da:

- 1.- Errespetatu behar dira, Heziketa Elkarteko kide guztien kontzientzia askatasuna, ideologia, erlijio eta etika mailako uste sendoak eta baita haien duintasuna, osotasuna eta intimitatea ere. Gerta litezkeen gatazken aurrean bide baketsuak bakarrik erabiliko dira, ikaskideekin beti tolerantzia eta solidaritate jarrerak mantenduko dira eta heziketa elkarteko gainerako kideen eskubideen jarduna indartuko da.
- 2.- Ikasleek ez dute erabiliko heziketa elkarteko gainerako kideenganako inolako adierazpen iraingarri, mehatxuzko edo gaizki esatekorik.
- 3.- Ikasleek eskola eremuan ezingo dute erabili grabazio bitartekorik, ikastetxeak berak programatutako jardueren kasuetan izan ezik. Kasu hauetan ere, heziketa elkarteko kideei ezingo die ezer grabatu ez beren gogoaren kontra, ez beren onespren espresik gabe.
- 4.- **Heziketa Elkarteko kiderik ez diskriminatu**, jaiotza tokia, arraza, sexua, ideologia, sexu-joera, hizkuntza, kultura, erlijioa edo beste ezin zirkunstantzia pertsonal edo sozialen arazoiz.
- 5.- Ikastetxeko **Heziketa Proiektua errespetatu**.

- 6.- Arautegi honetan gure mailarako zehazten den **Ikastetxeko Arautegia bete**.
- 7.- Ikastetxeak beren eskura jartzen dituen **instalakuntzak, altzariak eta material didaktikoak errespetatu eta behar bezala erabili**.
- 8.- **Aktiboki parte hartu eta lan egin** irakaskuntzaren, eskola-orientazioaren eta Ikastetxeko elkarbizitzaren garapen onena laguntzeko.
- 9.- Heziketa elkarteko gainerako kideen ondasunak eta beren gauzak errespetatu eta testuliburuak eta gainerako material didaktikoak baldintza egokietan mantendu, erabili ahal izateko. Ikasleen erantzukizuna da instalazioetan, altzarietan edo ikastetxeko materialetan, edo ikasleen gauzetan, egindako kalteak konpontzea, nahita edo utzikeria larriak eginak izan badira. Horren ordainez, beharrezko konponketen gastuen arduradun egin daitezke, gurasoak edo legezko ordezkariak hauen erantzule ordezkatzailerik.
- 10.- Ikasleek, ikastetxeak ezarritako heziketa neurri zuzentzaileetan sarturik dauden ekintzak egin beharra daukate.

2.2.- IKASTEKO BETEBEHARRA

Ikastea, ikasleen oinarrizko betebeharra da. Ondorioz, beren ahalmen pertsonalei eta ematen diren ezagutzei probetxua ateratzea eskatzen du, beren buruen garapen onena eta prestakuntza intelektual eta profesional egokia lortzeko. Betebeharrak horien ondorengo eginbeharretan zehazten da:

- 1.- **Eskolara joan, egutegian erabakitako jardueretan parte hartu eta ezarritako ordutegiak errespetatu.** Ikasle batek absentismo nabarmena daukala ikusten denean, ikastetxeak heziketa agintarien eta tokiko erakundeen jakinean jarriko du gertakaria, administrazio eta erakunde guztien lankidetzara lortzearen eskola absentismoa ezabatzeko.
- 2.- Ikasgelan **Irakaslearen azalpenak arretaz entzun** eta proposatzen dituen jarduerak didaktikoak egin.
- 3.- **Irakasleek agindutako lanak egin, agindutako epean eta moduan.**
- 4.- Ikaskideen **ikasteko eskubidearen jarduna errespetatu.**
- 5.- **Solidarioa izan,** ikasgelan, denen probetxurako giroa sortzeko, geletako jokabide aztoratzaileak saihestu.

3. ELKARBIZITZA ARAUAK

Adierazitako edozein eginbehar ez betetzea beti da, gutxienez, jokabide ezegokia, zuzendu egin beharko dena kasu guztietan, eta elkarbizitzaren aurkako jokaeratzat edo elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokaeratzat hartuko da, bere eskubideen jardunak eta eginbeharrek betetzeak heziketa elkarteko gainerako kideei eragiten dielako.

Ikastetxeko **irakasle eta hezitzaile guztiek**, beren hezitzaile zeregina beteaz, gelan edo ikastetxeko beste instalakuntzetan egindako **jokabide ezegokiak bideratzeko aurretik adostutako eta jakinarazitako neurri zuzentzaileak aplikatu ditzakete**, eta burutu behar dituzte, **zuzenean beren ardurapean daudenean, baita eskolako edozein gune hezitzailean daudenean ere**. Eta hitzez errieta egingo dio, unean bertan, elkarbizitzaren aurkako edo elkarbizitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren batean aurki lezakeen edozein ikasleri, eta koordinatzaile zein zuzendariarengana aurkezteko aginduko, beharrezkoa iritsiko balio, unean bertan baita ere.

Aurrez esandakoaren kaltetan izan gabe, **Zuzendariari**, edo arautegiaren arabera bere ordeaz dagoenari **dagokio** elkarbizitzaren aurkako edo elkarbizitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren baten aurkako **neurri zuzentzaileak aplikatzeko eskumena**.

Ondoren biltzen diren jokaerak ere zuzendu egin behar dira, ikastetxek kanpo edo eskolaorduz kanpo gertatzen direnean, ikastetxeak antolatutako jarduera osagarri edo eskolaz kanpokoetan gertatzen badira. Halaber, eskola-jardunarekin kausa-ondorio harremana frogatzen den guztietan beti zuzendu beharko dira.

Ikasleei, errespetuzko tratua eskatu ahal izango zaie, heziketa elkarteko kide guztiekiko, eta baita puntualki heziketa lanean lankide diren langile guztiekiko ere (begiraleak, hizlariak, etab...)

3.1.-PUNTUALTASUNA ESKOLETARA ETA IKASTETXEAREN HEZIKETA EKITALDIETARA ETORTZERAKOAN.

Garrantzitsua da behartzea bere alderdi hezitzaileagatik. Puntu honetan zorrotzak izan behar dugu ikasleekin eta geure buruarekin. **Irakaslea da bere gelako puntualtasunaren arduradun, eta bidezko mugen barruan lortu behar du.**

Jokabide ezegokiak dira:

a) Justifikatu gabeko puntualtasun falta*, ez errepikatuak.

Errepikatuak diren puntualtasun faltan kasuan, Tutoreari dagokio, hasiera batean, parte hartzea. Tutoreak ikaslearekin eta bere familiarekin hitz egingo du, jokabide hori zuzentzen saiatzeko, neurri zuzentzaileetara iritsi baino lehen. Gaiak izaera larriagoak hartuko balitu, klaustroari jakinaraziko dio tutoreak, eta kontsulta egingo du hartu beharreko neurriak hartzeko.

**Justifikatutako puntualtasun faltan kasuan, ikasleak bere justifikazioa ekarriko du, (korreo edo Alexia) idatziz, hutssegitea gertatu ondorengo eskola-egun bateko epean.*

3.2.- ESKOLARA ETORTZEA.

Eskolara etortzea eta ikastetxeak antolatutako eta/edo sustatutako ekitaldietara joatea beharrezkoa da.

Jokabide ezegokiak dira:

a) Eskolara edo eskola jarduera osagarrietara, justifikatu gabe egindako falta ez errepikatuak.

Eskolara ez-etortzeak irakasle bakoitzak kontrolatzen ditu, eskolara etortze orrian, eta baita puntualtasun faltak ere. Tutorea izango da eskolara ez-etortzeen

kontua Ebaluazio batean eramango duena, dagokion Ebaluazio saioan horren berri emanez.

** Familiak, eskolara ez-etortzearen justifikazioa, telefono dei, korreo, Alexia edo ikaslearen bidez (horretarako dauden inprimaketan) adierazi beharke du.*

3.3.- IRAKASLEEI ETA IKASTETXEKO LANGILEEI ERRESPETUA.

Jokabide ezegokiak dira:

- a) Irakasleen edo agintari akademikoen esanak ez betetzea, horrekin batera, mespretxu, irain edo nahita egindako diziplina ezik ez dagoenean, eta baita beren zereginetan diharduten ikastetxeko gainerako langileen oharrei kasurik ez egitea ere.
- b) Heziketa elkarteko kideen aurkako jarrera, keinu edo begirunerik gabeko hitzak.
- c) Ikastetxeko langileei gezurra esan edo gezurrezko informazioa ematea, heziketa elkarteko kideren bati kalte egiten ez diotenean.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- a) Agintari akademikoei edo irakasleei egindako desobedientzia ekintzak, diziplinarik ezarekin edo adierazpen iraingarri, mespretxu, erronka edo mehatxuekin batera doazenean, edo baita beren zereginetan diharduten ikastetxeko gainerako langileei ere.
- b) Ikaskideen edo heziketa elkarteko beste kideen aurkako mehatxu edo iraintzeko adierazpideak, edo baita heziketa elkarteko gainerako kideen aurkako keinu edo jarrerak, zalantzarik gabe, eraso ahalegin edo mehatxu gisa uler daitezkeenean.
- c) Heziketa elkarteko edozein kideren aurkako eraso fisikoa, ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzeko jokabidetzat har ez daitezkeenean.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira (3. ziklotik aurrera aplikatuko da):

- a) Diziplina ezaren edo obedientzia ezaren ekintza esplizituak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitearekin batera, eta baita heziketa elkarteko kideen aurka oso iraingarri edo mingarritzat hartzen diren adierazpideak ere, hitzez, idatziz edo baliabide informatiko edo ikus-entzunezkoen bidez eginak.

3.4.- IKASKIDEEI ERRESPETUA:

Jokabide ezegokiak dira:

- a) Kalifikaziorako balio duten azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo kopiatzen uztea, edo baimendu gabeko materialak edo tresnak erabiltzea bertan.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- a) Bestearen ohore, intimitate eta irudiaren eskubideak ez errespetatzea, berak aurrez berariaz adierazitako onespenerik gabe grabazio-bideak erabiliz.

- b) Besteari, indarkeria fisikoa erabili gabe, berak eskubidea duen zerbait egitea eragozte, era berean, indarkeria erabiltzera iritsi gabe, bere borondatearen aurkako zerbait eginaraztea.
- c) Jokabide ausartegiengatik arriskua sortu, zauri fisikoak eragin ditzaketen objektuak erabiliz.
- d) Diskriminazioa suposa dezakeen edozein ekintza edo jokabide, jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera, kultura, erlijioa, sinismena, ideologia edo bakoitzak izan dezakeen beste edozein egoera edo zirkunstantzia dela bide.
- e) Aurrez adierazitako jokabide ezegokietako baten errepikapena, hiruhilabeteko berean hiru aldiz izateraino.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira (3. ziklotik aplikatuko da):

- a) Heziketa elkarteko gainerako kideen aurkako eraso fisikoa, zauritzeko arrisku larriarekin.
- b) Bestearen ohore, intimitate eta irudiaren eskubideak ez errespetatzea, berak aurrez berariaz adierazitakoaren kontra grabazio-bideak erabiliz.
- c) Elkarbizitzaren aurkako diren jokabide oro, elkartearen edo nahitako publizitatearen zirkunstantziak bat egiten badute, dela ahoz, idatziz edo informatikaren bidez, edo baita eskola-jazarpen egoeraren batean parte hartzen dutenean ere.
- d) Diziplina ezaren edo obediencia ezaren ekintza esplizituak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitearekin batera, beren eskumenen jardunean ari diren Ikastetxeetako gobernu organoen edo irakasleen aurrean, eta baita heziketa elkarteko kideen aurka oso iraingarri edo mingarritzat hartzen diren adierazpideak ere, hitzez, idatziz edo baliabide informatiko edo ikusentzunezkoen bidez eginak.
- e) Zauriak eragiteko arrisku larria duten liskarrak edo jokabide erasokorrak eragitea, edo beroietan nahastea.

3.5.- IKASTETXEKO EDO IKASKIDEEN MATERIALARI ERRESPETUA:

Denok, irakasle nahiz ikasle, ardurak hartu behar ditugu zentzu honetan, ahal dugun ikasgela, korridore eta patio ordenatu eta txukunenak izateko geure ekarpena eginez.

Jokabide ezegokiak dira:

- a) Ikastetxeko hornikuntza elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo beste edozein motatakoa, berariazko baimenik gabe erabiltzea.
- b) Ikastetxeko lokalak, bertako materialak edo heziketa elkarteko gainerako kideen objektu eta gauzak hondatzea, asmo txarrez izan gabe, zabarkeria hutsez egiten denean.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- 3) Jakinaren gainean edo erabilera okerragatik, kalteak eragin direnean, ikastetxeko lokaletan, altzarietan, materialetan edo dokumentuetan, edo heziketa elkarteko gainerako kideen gauzetan, eta ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideak ez direnean.

Ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- a) Dokumentu bat edo eskola erregistro bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, nola idatzizkoan ala informatikoan, eta baita dokumentu akademikoak baimenik gabe ezkutitzea edo erretiratzeari ere.
- b) Gurasoen edo tutoreen sinadurak faltsifikatzea.
- c) Bandalismo ekintzetan parte hartzea edo instalazioetan, ikastetxeko ondasunetan, bertako langileei, beste ikasleei edo hirugarrengoei kalteak eragitea.

3.6.- JABETZARI ERRESPECTUA.

Jokabide ezegokiak dira:

- a) Ikaskideen gauzak intentzioz erabiltzea haien gogoz kontra.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira: b)

Objekturen bat lapurtzea.

Ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira

- c) Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokaera errepikatzea eta altzariak, instalazioak edo pertsonak bortxatuz objektuak lapurtzea.

3.7.- LANGIROA.

Irakaslearen edo eskola-lagunen jarduera akademikoa errespetatu behar da, eta arreta eta ahalegin akademikoa erakutsi (lanak aurkeztu, geletara material egokia ekarri...)

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- a) Azterketako notak edo beste edozein dokumentu aldatzea, edo baita gurasoentzat edo legezko ordezkariarentzat diren irakasleen oharrak ez eramatea ere.
- b) Ikastetxeko jardueren garapen normala aldatzen duten justifikazio gabeko ekintza indibidualak edo talde mailakoak, ikaskideen ikaste eskubidea benetan oztotutzen dutenean.
- c) Ikasleagoak debekatua du sakeleko telefonoa erabiltzea irakaslearen baimenik gabe (gelako lanerako), beraz, ezin izango du sakeleko telefonorik erabili ikastorduetan (errekreok barne), gelan eta gune hezitzaileetan (jantokia, kapera, aldagelak, eliza, patioak,...). Ikastetxera ekarriko balu, helduek, gelara doan lehen irakasleari entregatuko dio giltzapean gorde dezan. Klase orduak bukatzean irakasleari eskatu eta honek bueltatu egingo dio.
- d) Erabat debekatua dago ikasleentzat ikusentzuneke eta/edo tresna elektronikoak ikastetxean erabiltzea (argazki makina, bideokamara, argazki tresnak, bideojokoak, ipod, tabletak...) bertako langilegoaren baimenik gabe (irakasleak, adminostrazio eta zerbitzuetaiko langileak,...)

- e) Era berean, erabat debekatua dago ikasle, irakasle edota zerbitzuetako pertsonen irudi eta soinuen grabazioa, irakasle baten baimenarekin ez bada, ikastetxeko edozein gunetan (aldagela, zerbitzuak, jantoki edo eraikineko beste edozein gunetan, patioak barne)

3.8.- OSASUNAREN ZAINTZA.

Higienearen aurkako ekintza da, gelan, korridoretan, eskaileretan edo ikastetxeko beste lekuetan erretzea, alkohola edota bestelako droga edo sustantzia kaltegarriak kontsumitzea. Horregatik dago Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza sailak debekatua. Halaber ezingo da inola ere halako sustantziarik eskolara ekarri.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- a) Eskola orduetan, geletan janariak edo edariak kontsumitzea, edo baita ikastetxeko esparruan erretzea ere.
- b) Gorputz Heziketako eskoletarako, berariazko arropa ekarri beharko dute. Eskola horien ondoren derrigorrezkoa da duxatzea (2. eta 3. zikloan aplikatuko da)

Ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- a) Heziketa elkarteko kideen osasunarentzat eta osotasun pertsonalarentzat oso kaltegarriak izan daitezkeen jokaeretara kitzikatzea, baita erueda emanez ere, hala nola, tabako, alkohol eta droga kontsumoen bidez. Halaber **erabat debekatuta dago osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen sustantziak eskolako instalakuntzetan gordetzea.**
- b) Zauriak eragiteko arrisku larria duten liskarrak edo jokabide erasokorrak eragitea, edo beroietan nahastea.

4. GELATIK EGOZTEA.

Ahal dela ez da eskolatik inor egotzi behar, oso muturreko kasuetan izan ezik, kurtsoko gainerakoentzat eragozpenak eragin ditzakeelako eta ikasle berarentzat denbora galtzea delako.

Gelatik egoztea ezinbestekoa bada, kontuan izan behar da oso zigor larria eta ezohikoa dela gelatik egoztea, azkeneko irtenbidea dela, ez lehenbizikoa. 5 minuturako egotziz ahaleginduko da gela barruan gerta daitezkeen jokabide ezegoki horiek zuzentzen. Gelatik egoztea gertatzen bada, jarduera positiboren bat edo galdutako denboraren errekupeazioa egitea proposatuko du irakasleak.

Irakasleak, era berean, eskolara etortze-orrian gelatik egoztearen arrazoiak idatziko ditu. Ikasle bat Ebaluazio berean bi aldiz izan bada gelatik egotzia, dagokion tutoreak familiari jakinaraziko dio.

Ebaluazio berean ikasle bat hiru aldiz izan bada egotzia eskola-jardunetik kanpo utziko da **egun baterako**.

Eskolatik egozteak behin eta berriro gertatuko balira, elkarbizitzaren aurkakotzat edo ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartuko dira.

5. HEZIKETA-NEURRI ZUZENTZAILEAK

Ikastetxeko Heziketa Elkartearen bizitza ez dago irizpide arauzale baten bidez markatua, baizik **elkarbizitzak, elkarrekiko konfiantzak eta laguntasun giroak izan behar dute nagusi**. Nola **nahi** ere, ikastetxea indarrean dagoen legeriaren menpe dago eta, beraz, ekintza zuzentzaileak aipatu Dekretuan adierazitakoaren arabera aplikatuko dira. Horretarako *“Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez besteko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretua aplikatzeko gida”* izango dugu erreferentzia gisara.

Dekretuan aipatzen den legez, **neurri zuzentzaileek helburu hezigarria izango dute**, batez ere, hala zuzendu behar den jokabidea egin duen ikaslearentzat, nola gainerako ikasleentzat. **Neurri zuzentzaileak hezkuntza-jardunaren baitan beteko dira, hainbat arlotako oinarrizko gaitasunak lortzen laguntzeko**, hala nola gizarte- eta herritartasun-arlokoak nahiz **autonomia** eta **ekimen pertsonalaren** arlokoak.

Ikastetxeko edozein hezitzailek eskuhartu ahal izango du ikastetxeko instalazioetan gerta daitezkeen jokabide desegokiak zuzenduz eta ikaslea ohartaraziz, haien zaintza zuzenaren pean dauden bitartean. Era berean, hezitzaileek ahozko ohartarazpena egin ahal izango diote bizikidetzaren aurkako jokabidea egiten ari den edo bizikidetzara hori larriki kaltetzen duen jokabide batean harrapatzen duen edozein ikasleri. Jarrera horien aurrean, **hezitzaileek ezarritako esku-hartze prozesua jarraitu beharko dute, eta gertakarien berri eman beharko diote berehala dagokion tutoreari edo koordinatzaileari**. Beharrezkoa izanez gero, **gertakariak** hezkuntza-zikloari eta -ikasturteari dagokion gorabeheren **erregistro-orrian jaso** beharko ditu.

2008ko eskubide eta betebeharrei buruzko dekretuaren 33. artikuluari jarraituz, jarraian jasotako **jokabideak zuzendu egingo dira ere eskola esparrutik edo ordutegitik kanpo gertatu direnean**, betiere, ikastetxeak programatutako jarduera osagarriak edo eskolaz kanpokoak egiten ari direnean, **jantokian, liburutegian** edo **garraio**-zerbitzuak erabiltzen ari direnean edo eskola-jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.

Jokabide ezegokiak irakasleek eta tutoreek zuzenduko dituzte, ikaslearen pertsonarekiko errespetuzko eta laguntzeko harreman positiboa mantenduz beti ere, ondorengo neurri hauetakoren bat edo gehiagoren bidez:

- a) Jokabide ezegoki zehatzaren eta bere ondorioen inguruko gogoeta.
- b) Jokabide ezegokiaren aitortza, horren ondorioz kaltetuak izan daitezkeen pertsonen aurrean.
- c) Ikasketa jarduerak egitea eta jokabide zuzenaren bideak barneratzea.
- d) Hondatutako materiala ordezkatzeta edo konpontzea.
- e) Jokabide ezegokiarekin lotura duen eskolako lanen bat egitea

Elkarbizitzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak (edo berak izendatutako ordezkarien batek) esku hartuko luke, ondorengo jokabide hauetakoren bat edo batzuk erabil ditzake:

- Elkarbizitzaren aurkako jokabide zehatzaren eta bere ondorioei buruzko **gogoeta**, eta **zuzentzeko orientabideak**.
- **Idatzizko ohartarazpena**, bertan, tutorearen edo, bere kasuan, gaiko irakaslearen **txosten zehatza** sartuko delarik.
- **Ohartarazpena gurasoen** edo legezko ordezkarien **aurrean**.
- **Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea**, aldi baterako edo behin betirako.
- **Heziketa lanak, edo eragindako kalte materialen konponketako lanak egitea** edo beharrezkoa balitz ordaintzea, halaber, ikastetxeko jardueren hobekuntza eta garapen lanak, lan hauek elkarbizitzaren aurkako jokoarekin zerikusia duten neurrian.
- **Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea**, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoekin elkarrizketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.
- **Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubiderik gabe uztea**, ez hiru hilabete baino gehiago.
- **Eskolaz kanpo izango diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubiderik gabe uztea**, ez hiru hilabete baino gehiago.

Kasu guztietan ere **beharrezkoa izango da ikaslearen alde aurreko entzunaldia. Ikastetxeko jardueretan parte hartzeko eskubiderik gabe uzten denean, beharrezkoa izango da gurasoen edo legezko ordezkarien entzunaldia** ere.

Zuzendariak zuzendu ditzake, **ikastetxean elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideak**, aurreko puntuan jasotzen diren puntuetako bat edo gehiagoren bidez, eta baita ondorengo beste hauetako edozein erabiliz ere:

1. **Heziketa lanak**, edo eskolako jarduerak hobetzeko edo garatzeko izan daitezkeenak, edo eragindako kalte **materialak konpontzeko lanak eskola-orduz kanpo egitea**.
2. **Ikasgai bat edo gehiagoren eskoletara joateko eskubiderik gabe uztea**, **hiru egunetik hogeirako tartean**, ebaluazio jarraitua galdu gabe horregatik.
3. **Ikastetxera etortzeko eskubiderik gabe uztea hiru egunetik hogeirako epean**, izendatzen zaizkion prestakuntza jarduerak dagokion irakaslearen kontrolpean egiteko betebeharrarekin.
4. Ikastetxez kanpoko **eskolaz kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko**, edo zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko **eskubiderik gabe uztea**, **ikasturtea amaitu bitartean** ere iraun dezakeelarik.

Artikulu honetako 2, 3 eta 4 apartatuetan jasotzen diren neurriak, erabil daitezke, elkarbizitzaren aurkako jokaera larriak zuzenduko ez balira 1. apartatuan adierazitakoak aplikatu arren.

Ikaslea, alde aurretik, ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideengatik zuzendu behar izan bada, **behin baino gehiagotan ikasturte berean, ikaslearen matrikula**

beste ikastetxeren batera aldatzeko proposa diezaioke zuzendariak administrazioari. Heziketa administrazioak erabakiko du gertakarien aurrean zer egin behar den.

Ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokabidea, **ikastetxeko irakasleren baten bortxa edo erasoaren denean, zuzenean proposa daiteke aipatu aldaketa**, ikaslea aurrez zuzendu beharrean izan ez bada ere. **Hezkuntza administrazioak erabakiko du** gertakarien aurrean zer egin behar den.

Neurri hauek hartzeko orduan, ikaslearen jokabidean eragina izan dezaketen zirkunstantzia pertsonal eta sozial guztiak hartu behar dira aintzat, irakasleei edo zuzendariari, ikaslearen eginbeharrak betetzearen garrantzia behar bezala ulertu eta baloratzeko balio diezaieten.

- a) Zer-nolako kaltea eragiten duten jokabideek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideen eta betebeharren egikaritzan.
- b) Jokabide horientzat edo horien ondorioz, hezkuntza-komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo agintean jasan duten kaltea edo jasan dezaketena.
- c) Ikasleen jokabidean eragina duten inguruabar pertsonalak eta sozialak, behar bezala baloratzeko zer-nolako garrantzia duen haien betebeharren urraperak eta 3.3. artikuluan adierazitako oinarritzko gaitasunetan izan ditzaketen gabeziak.
- d) Jokabidearen ekintzak egiteko gertatu diren inguruabarrak.

Halaber, **neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez** aplikatzen direla bermatzeko irizpideak (dekretoren 41. artikulua) kontutan hartu beharra ikusten da, besteak beste, erantzunkizuna arintzen duten inguruabarrak edo erantzunkizuna larritzen dutenak.

Kontutan izan behar da, baita ere, eskubideen aurkako jokabideak zuzentzeko neurriak ez direla, erabakiak izan ondoren, finkoak eta mugiezinak, aukera izango baita, baldintza batzuk betez gero, neurri horiek eten, arindu edota kentzeko ere. Izan ere, bizikidetzaz arduratzen den talde eragileak, zuzendaria barne, **ahal dela, neurri zuzentzaileak ezarri aurretik, elkarbizitza planaren argira sustazen diren bide alternatibo eta hezigarriak aplikatzen saiatuko baita**: adiskidetzeara, egindako kalteraren onartzea, barkamena eskatzea, gurasoekin elkarlana eta hauen parte hartzea jarrerak zuzentzerako orduan, ikasleen konpromisua egindakoa ez errepikatzen...azken baten, bide alternatiboak eta hezitzaileak lehenetsi behar dira.

Bestalde jokabide desegokien aurreko eskuhartzean **prozedura zehatza eta argia jarraitu behar da, tajuz bereiztuz** irakasleak eta hezitzaileak eurek bideratu ditzaketen **jokaera ez egokiak**, batetik, eta Elkarbizitza taldearen (BAT taldea ere baderitza) eskuartzea eskatzen duten **jokaera desegoki nabarmenak edota elkarbizitzaren aurkakoak**, bestetik. Azken hauek ondo araututako prozedura eskatzen dute, batzuetan idatzizko ohiko prozedura jarraitu beharko delarik.

Hartu beharko diren gainerako izapide eta neurrietan, eta arautegi honetan jaso ez direnetan, Eusko Jaurlaritzaren, 2008ko abenduaren 16ko data duen, ikasleen eskubide eta betebeharren dekretura joko dugu.

6. ESKOLAKO JANGELAREN ERABILERA

Jantokiak duen **izaera hezitzailearengatik berebiziko garrantzia dauka ikasleen garapenerako**. Batetik, ikasleak modu sano eta orekatuan elikatzeko helburua dauka, baina baditu beste hainbat helburu inportante, hala nola, osasunaren zaintzari begirako ohiturak lantzea, edota bizikidetza giro partehartzailea sustatzea baita, gelako dinamiketarik haratago, elkarrekin errespetuz jokatzeko eta disfrutatzekeo tartekak eskeintzea ere. Beraz, balioetan hezteko gune berezia da jantokia, ikastetxean sustatzen diren balio askoren uztarketa ematen delako, errespetua, bizikidetza, norbere buruaren zaintza, higiena, elikadura ohitura sanoak, birziklatzea eta kontsumo arduratsua, besteak beste.

Jantokia, **ikastetxeko beste guneak bezala, gune hezitzailea da** eta ondorioz errespetuz jokatu behar da espazio honetan. Horregatik, ikasleen jokabideak errespetuzkoa eta arretatsua izan behar du uneoro, hala jantokiko nahiz patioko langileekin, nola gainerako ikaskideekin zein bertan dauden ikastetxeko gainerako langileekin. Horretarako, erabilera egokia emateko asmoz eta **elkarbizitza arauak bete daitezzen erabilpen arautegi honetan biltzen diren xedapen guztiak zaindu behar dira**. Kontutan izan behar da, halaber, jantokiaren erabilera eremuan gertatutakoak, eskola-jardunarekin kausa-ondorio harremana izaten dutela gehienetan eta horregatik zuzendu beharko dira gertatzen diren jarrera desegoki guztiak.

Egia da arauak beharrezkoak direla edozein giza talde batzen den eremutan, baina jantokiaren izaerarengatik, inon baino gehiago da beharrezkoa bertako erabiltzaile guztien lankidetzeta eta parte hartzea (ikasle, guraso, langile eta hezitzaile,...) hori baita modu bakarra zerbitzua hobetzeko eta, aldi berean, denon gustuko espazioak izatea bai jatorduan, bai jatordu osteko tartean ere.

ERABILTZAIILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Zuzentasuna mantendu behar da kanpoko portaeran, jaterakoan eta auto-zerbitzua erabiltzerakoan. Ikastetxeko Heziketa Elkartearen bizitza ez dago irizpide arauzale baten bidez markatua, elkarbizitzak, elkarrekiko konfiantzak eta laguntasun giroak izan behar dute nagusi. Nola nahi ere, **ikastetxea, indarrean dagoen legeriaren menpe dago eta, beraz, ekintza zuzentzaileak aurretik aipatutako 2008ko dekretuan adierazitakoaren arabera aplikatuko dira**.

Gune hezitzailea den aldetik, **erabiltzaile guztiek dute araudi honetako 1.atalean eta 2.1 atalean biltzen diren eskubide, betebeharrak eta eginbeharrak guztiak**. Azpimarragarri dira bereziki, jantokiarekin lotutako betebeharrak eta oinarritzko jarraipide hauek:

1. Jantokian **denetik jan behar da**. Plater bakoitzeko errazioaren **kantitatearen erdia jan behar da gutxienez** eta plater bat errepikatzekeo, biak bukatuta egon behar dira.
2. Jantokitik kanpora ezin da jatekorik atera.
3. Begiraleen baimena behar da jantokitik ateratzeko.
4. **Garrantzitsua da eskaileretan eta jantoki inguruko giroa zaintzea**, gerta daitezkeen zarata eta garrasiak saihestu behar dira, eta ahalik eta gutxien molestatzen ahalegindu behar da. Argi utzi behar da hori **ez dela baloiarekin jolasteko lekua**.

5. **Errespetatu behar dira jantokiko langileak baita jolastokiko begiraleak ere, PERTSONA GUZTIAK**, ikaskideak, eta zerbitzu hori erabiltzen duten zentroko gainerako langileak..
6. **Errespetatu behar da ilarako ORDENA eta jantokiko TXANDAK** (mailari dagokion ordutegia), eta kasu egin behar zaie begiraleek ematen dituzten jarraipiddei.
7. **GARBIA** izan. Erabili mahai-tresnak modu egokian, eta ez jolastu janariarekin edota urarekin.
8. **Bukatutakoan, JASO eta atondutako tokietan utzi erabilitako ontzi eta tresnak.** Jantokitik irten baino lehen, hartu norbere gauzak; ez utzi liburuak, arroparik edota bestelako objekturik jantokian.
9. **Eskatu begirunez**, eta izan pazientzia; itxaroten jakitea ere garrantzitsua da eta, ez ahaztu bertako langileak euren lana ahalik eta ondoen betetzean saiatzen direla.
10. **Jantoki osteko denborak araututa** daude eta oso garrantzitsua da ikasturte bakoitzari dagozkion eremuak erabiltzea jolasteko. **Begiraleei kasu egin behar zaie eta gogoratu eskola eremuan ezin direla mugikorrek edo eta bestelako gailu elektronikoko digitalik erabili. (Beharrezkoa izanezkeroko dokumento honetan 7.3. atalean jasotako neurri zuzentzaileak aplikatuko dira)**

LHko araudi orokor honetan jasotakoez gain, **Jantokiak badu funtzionamendurako barne araudia, eta begiraleei dagokie horiek betearazteko erantzunkizuna.** Hauxek dira oinarritzkoenak:

Hutsegite arina	Neurri hezitzailea	Arduraduna
Plater bakoitzeko errazioaren gutxieneko kopurua ez jatea.	Begiraleak ahozko ohartarazpena egingo dio eta jaten ahalegintzeko eskatu. Tarte bat emango zaie dagokien kopurua jan arte.	<i>Begiralea</i>
Begiraleei edota ikaskideei errespeturik gabe hitzegitea.	Ahozko ohartarazpena., jarrera zuzendu dezan eskatuz. Eta tutoreari adieraziko zaio.	<i>Begiralea eta tutorea</i>
Erretiluak, mahai-tresnak, edalontziak edo janari-arrastoak mahaian uztea	Mahaian utzitakoa behar bezala jasotzeko eskatuko dio begiraleak	<i>Begiralea</i>
Jantokian janaria eta/edo ura botatzea	Botatakoa jasotzeko eskatuko zaio	<i>Begiralea</i>
Sarreran eta irteeran nahasmendua sortzea	Ohartarazpena eta begiralearen aginduei kasu egin.	<i>Begiralea</i>
Oihukatzea eta ingurukoak molestatzeko	Ahozko ohartarazpena. Lekuz aldatu.	<i>Begiralea</i>
Ordutegia ez errespetatzea	Ilaran azkena jartzea, eta begiraleen aginduei kasu egin.	<i>Begiralea</i>
Jantoki osteko jolastorduan begiraleei eta ikaskideei errespeturik ez erakustea.	Ohartarazpena eta begiraleak tutoreari adierazi.	<i>Begiralea eta tutorea</i>

Jantokitik edo eskolako eremutik kanpora baimenik gabe ateratzea.	Falta larritzat hartuko da, eta jarrera desegokien trataera emango zaio. Jantokiko arduradunak, egun berean, tutoreari eta familiari mezua bidaliko die.	<i>Jantokiko arduradura</i>
---	--	-----------------------------

Arestian aipatutako **falta arinak errepikatuko balira**, jantokiko arduradunak Alexiaren bitartez **gertakari** edo **inzidentzien berri emango die gurasoei eta tutoreari**, hutsegitea egiten den **egun berean**. Egoera horiek **jokaera desegokitzat hartuko dira** eta hiru esparru edo arlokoak izan daitezke hutsegiteak:

1. Jan beharreko gutxieneko kopuruan hutsegite errepikatua bada.
2. Jantokiaren funtzionamendu araudian arau haustea era errepikatuan denean (bi aldiz baino gehiago hiruhilabete berean)
3. Hezitzaile, eta begiraleenganako errespetu faltak nabarmen errepikatzen direnean (bi aldiz baino gehiago hiruhilabete berean)

Falta arin hauek kenduta, **jarrera desegokiak, elkarbizitzaren aurkakoak eta elkarbizitza larriki kaltetzen dutenak LHko araudi orokor honetan jasota dauden prozeduraren arabera bideratuko dira**

Jantokiko erabileran: **Ikastetxeko irakasle, monitore eta langile guztiek**, beren hezitzaile zeregina beteaz, gelan edo ikastetxeko beste instalakuntzetan egindako **jokabide ezegokiak zuzendu ditzakete** eta zuzendu behar dituzte, zuzenean beren ardurapean daudenean, eta hitzez errieta egingo dio, unean bertan, elkarbizitzaren jokabide ezegokiren batean aurki lezakeen edozein ikasleri.

Aurrez esandakoaren kaltetan izan gabe, **zuzendariari**, edo arautegiaren arabera bere ordez dagoenari **dagokio elkarbizitzaren aurkako edo elkarbizitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren baten aurkako neurri zuzentzaileak aplikatzeko eskumena**.

7. FUNTZIONAMENDU OROKORRERAKO ERANSKINAK

7.1 ORDENAGAILUAK ERABILTZeko JARRAIPIDEAK

- **Ordenagailuak ikasleei eman aurretik**, hitzaldi informatibo bat emango zaie, ordenagailuen erabilerak nolakoa izan behar duen azaltzeko. (IKTen arduraduna)
- **Tutoreak ere tutoretza-saioak** egingo ditu ikasturtearen hasieran. Saio horiek teknologia berrien (ordenagailua, funtsean) erabilera egokiari eta arduratsuari buruz hausnartzeko erabiliko dira.
- **Irakasleak esango du noiz ordenagailuak piztu.**
- **Irakasleak esandakoari jarraitu beharko diote ikasleek**, berak adieraziko baitie zein aplikaziotan sartu eta zeintzuk diren saio bakoitzaren zereginak. Beraz, ikasleak

agindutako aplikazioetan baino ezingo dira sartu. Beste programa edo aplikazioen baten premia izango balute (deskargak egiteko, dokumentuak berreskuratzeke,...) irakasleari baimena eskatu beharko liokete.

- **Ordenagailuaren erabilera ez bada beharrezkoa (irakasleak esango du), ezin izango dute erabili. Horrela gertatuko balitz, irakasleak egun baterako kendu ahal dio. Gela barruan, erabilera desegokia bada ere (jokuetan aritzea, beste orrialde batean egotea...), neurri hezitzailea berdina izango litzateke.**
- **Ekipoetan ezingo dituzte**, euren kabuz, ezelango **konfigurazio aldaketarik egin** (pantailako irudia, konfigurazioa, programak, eta abar). Salbuespen moduan, edozein inzidentzia izango balute edo aldaketaren bar sartzeko beharra balute, beti adierazi beharko liokete irakasle arduradunari, berau zerbitzu teknikoarekin harremanetan jar dadin.
- Gailuetan matxura edo arazoan bat gertatuko balitz, ezarritako prozedurari jarraituko diote ikasleek. Geletan dagoen inzidentzia orria bete behar dute eta ordenagailua harreragunera jeitsi, bertan agiriaren kopia jasoko dute eta zikloko koordinatzailearengana jo behar dute, agiria entregatu eta ordezkoa emango zaie.
- Ikasleek eta haien familiak argi izan behar dute ekipoak, dena ordaindu arte, Ikastetxearenak direla; beraz, busti, apurtu edo arduragabeko erabileraren ondorioz, zerbait gertatzen bazaie ikastetxeak neurriak hartuko dituela.
- **Lapurretak** edo **desagerpenak** izanez gero, Ertzaintzan ipinitako salaketaren agiria ikastetxean aurkezteko beharra izango dute.
- Erabiltzeleek izango dute ordenagailuan dauzkaten artxiboak eta informazioa gordetzeko erantzunkizuna, behar izanez gero dagozkien kopiak eginez. Ekipoan formatetu beharra balego, zerbitzu teknikoak ez du ardura hori bere gain hartuko.
- Ikasle bakoitzak portatilak duen “Web Cam” -eri pegatina bat itsatsiko dio.

7.2 ORDENGAILUAK ERABILTZEKO UNEAK ETA ESPAZIOAK

- Portatilak lan tresnak dira **eta bazkal orduan takilero edo geletan gorde behar dira. Jolasorduan ezin da ordenagailua atera ezta erabili ere. Norbaitek bazkalorduan erabili beharko balu, liburutegira joan beharko luke**, huraxe baita leku egokia lan egiteko. **Jantokian eta pasilloetan ordu horretan ez da portatila erabiliko.**

Ikasleek badakite ordenagailua jolasorduan takilerokan gorde behar dutela, beraz ikasleren bat jolasorduan ordenagailuarekin karrajuan arituko balitz, ordenagailua hartu eta koordinatzailearen bulegoan utziko genuke ikaslearen izena post-it batean idatzita. Errekreao amaitzen denean, irakasleak koordinatzailearen bulegoan jasoko luke eta koordinatzaileak tutoreari horren berri emango dio. Ikasle bera birritan harrapatuz gero, tutoreak gurasoei gertatutakoa jakinaraziko die eta ohartaraziko die berriro harrapatuz gero, arratsaldeko eskolak amaitzen direnean, gurasoak eurak eskolara hurbildu beharko liratekeela ordenagailua hartzen.

Bazkaltzeko orduan:

Jantokian geratzen diren ikasleek ordenagailua erabili nahi izango balute, liburutegian egin beharko lukete, beraz, ezingo dute ez korridoretan ezta patioan ere erabili. Ikasleren bat jantoki eremu hauetan ordenagailuarekin arituko balitz aurreko puntuan adierazitako neurriak hartuko dira.

7.3 SAKELEKOAK ETA BESTELAKO GAILUAK ERABILTZeko ARAUAK

1.-Ikasle **sakeleko telefonoa, ikus-entzunezko aparatuak eta / edo elektronikokoak**(mp3, gameboys, mugikorrak, ipod, smartwach...) gelara ekar ditzakete **familiaren baimen sinatuarekin**. Gelara sartzen denean dagokion **irakasleari emango dio**(mobila amatatuta), eta honek mahaiko kajoian gordeko du. Ikasleak, klase orduak amaitzen direnean, irakasleari eskatuko dio. **Ikasleek ezin izango dituzte mobila ezta bestelako tresnak erabili eskola eremuan eskola ordutegian ezta ordu osagarrietan.**

2.- **Erabat debekatua dago beste tresna elektronikokoak ikasgelan erabiltzea** (argazki makina, bideokamara, musika tresnak, erloju adimentsuak edo smartwach-ak, etab...) irakaslearen baimenik gabe.

3.- Era berean, **erabat debekatua dago ikasle, irakasle edota zerbitzuetako pertsonen irudi eta soinuen grabazioa, irakasleren baten zuzeneko baimenarekin ez bada**, ikastetxeko edozein gunetan (aldagela, zerbitzu, jantoki edota eraikineko beste edozein gunetan, patioak barne).

NEURRI ZUZENTZAILEAK:

Kurtsoaren hasieran tutoria saio bat izango da teknologia berrien erabilera egokiaren inguruko hausnarketa burutu eta IKT-en erabilera arduratsuko jarrerak sustatu ahal izateko (Sakelekoak ere tartean).

Hezitzaile batek ikaslea baimenik gabe sakeleko zein beste tresna elektronikoko bat erabiltzen ari dela erreparatuko balu:

- **Lehenengo aldiz bada**, telefonoa kendu egingo dio eta **tutorearen esku** utziko du. Egun horretako **azken ikastordua amaitzerakoan bueltatuko dio**. **Tutoreak gertatutakoaren berri familiari helaraziko dio**.
- **Bigarren aldiz bada**, irakasleak telefonoa kendu egingo dio eta **tutorearen esku** utziko du. Kasu honetan **tutoreak bost egun lektibo gordeko du tresna**. Bostgarren egunean itzuliko diolarik azken orduan. **Gurasoei jakinaraziko die gertatutakoa**.
- Hirugarrenez, bada, irakasleak telefonoa kendu egingo dio eta, **tutorearen esku** utziko du. Azken honek **koordinatzaileari utziko dio gailua eta bost egun**

lektibo gordeko du. **Koordinatzaileak familiari deitu eta aurrez aurreko bileran indarrean dagoen araudia aplikatuko litzateke ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidetzat hartuz.** (31. Artikuluaren barruan, m atala.Eskubide eta betebeharren dekretua,Eusko Jaurlaritza)

- **Errepikapena eman ez gero** ikasleari telefonoa kendu egingo zaio eta, tutorearen esku utziko du. Azken honek **koordinatzaileari utziko dio gailua eta bost egun lektibo gordeko du. Koordinatzaileak familiari deitu eta aurrez aurreko bileran indarrean dagoen araudia aplikatuko litzateke ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide oso larritzat hartuz.** (31. Artikuluaren barruan, m atala.Eskubide eta betebeharren dekretua,Eusko Jaurlaritza)

7.4 TAKILAK ERABILTZEKO ARAUAK

- Ikasle bakoitzak bi giltz izango ditu eta bere ardurapean egongo dira.
- 9:00ak baino lehen lehenengo, goiz osorako, edo gutxienez, 11:00ak arterako behar duen materiala aterako du.
- Arratsaldean ere, 14:30ak baino lehenago, behar duten guztia takiletatik hartu bejar dute.
- Gelaz aldatzen direnean (Arte Hezkuntza, Gorputz Hezkuntza, Gela Aldaketa ...) hartu ditzakete lanerako beharrezkoak diren tresnak klaseen ordutegia errespetatzen den heinean.
- Jolasorduetan eta bazkal orduan, euren material mahaiko kajoietan gordeko dituzte. Asteazkenetan, eguerdiko 13:00etan, behar duten materiala takilaetan gordeko dute; era berean, 16:30etatik aurrera, materiala takiletan gorde behar dute.
- Ordenagailua deskargatuta balego, etxera eraman behar da kargatzeko. Erabiltzaile bakoitzak izan behar du horren ardura.
- Gabonetan, aste santuan eta kurtso amaieran hustuko dira takilak.

8.ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAKO ELKARBIZITZA ARAUAK

SARRERA

Arautegi honek, beraz, gizarte demokratikoak bereak dituen askatasuna, errespetua, tolerantzia, integrazioa, partehartzea eta kritika ahalmena sustatu behar ditu. Baina baita, norbere gaitasunak garatzeko erantzukizuna eta besteen zerbitzuan jartzeko ahalmena ere.

Dokumentu honetako arauak, adierazitako printzipioen zehaztapen praktikoa eta proposatutako helburuak lortzeko laguntza eraginkorra izatea nahi da.

Lehen hezitzaileak gurasoak direla aintzat hartuz eta lan horretan gu haien lankide garelara, arrazoi horregatik, **arautegia ezartzerakoan informatuta egon behar dute** (arautegia dagoela adieraziz, jokatzeko moduz informatuz...) betetzeko moduei dagokienez, betebeharrak gertatzen direnean beren seme-alaben jokabidearen aldetik.

Neurri zuzentzaileak ahal den eperik laburrenean aplikatu behar dira, bere helburua hezitzailea delarik funtsean, nola jokabide ezegokiaren erantzule den ikaslearentzat, hala gainerako ikasleentzat.

Ezinbestekoa da gurasoek neurri zuzentzaileak berresten laguntzea, gure lehen heziketa lana oztopatzen duten ikasleen oinarrizko gaitasun sozialak eta herritar mailakoak lortzeko.

Ikasle guztiek dute, arautegi horretan aitortzen diren balioak eta printzipioak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra, eta baita beraietan prestatzekoa ere.

Ikasleak beren eskubideez baliatuko dira, beren betebeharren eta heziketa elkarteko gainerako kideen eskubideen aitortzaren eta errespetuaren kaltetan izan gabe.

Zuzentzekoak izan daitezkeen jokabideak, heziketa elkarte osoak ezagutzea bermatze aldera, **ikasturte bakoitzaren hasieran, Eskolaz Kanpoko Ekintzetako arduradunen bitartez, ekintza hauetan parte hartzen duten ikasle guztiei gogoraraziko zaie dokumentu honen edukia**, eta baita beren gurasoei edo legezko ordezkariari ere ikastetxeko WEB orriaren bidez..

- Adina eta hezkuntza maila aintzat hartuz, Lehen Hezkuntzako 4.maila bitartean, araudi honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, jokabide ezegokitzat hartuko da soilik, inolako prozedura formalen menpe jarri gabe, entrenatzaile, monitore, irakasle eta EKE arduradunek zuzenduko dute.
- Lehen Hezkuntzako 3.ziklotik aurrera ikastetxeek, izaera ezohikoan eta hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren baimenez, Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako diren edo larriki kaltetzen duten jokabideei dagokienez, era orokorrean ezarria dagoena aplikatu ahal izango dute, berorren aplikazioa derrigorrezkoa delarik 14 urtetik aurrera.

1.- Eskolaz Kanpoko Ekintzetako PARTEHARTZAILEEN ESKUBIDEAK

1.1.- HEZIKETA INTEGRAL BATEN ESKUBIDEA

Legedia ezagutzeko eskubidea eta betebeharra.

Ikasle guztiek dute, beren adinak baimentzen duen neurrian, indarrean dagoen legedian onartutako balioak eta printzipioak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra, eta baita horietan prestatzekoa ere.

1. Beren nortasunaren garapen osoa lortzen lagunduko dien prestakuntzaren eskubidea.

Eskubide honek esan nahi duenaren zenbait adibide aipatzen dira:

- **Eskubideen eta askatasunen errespetuan** eta tolerantzia-jardunean **prestatu**.
- **Afektibitatea, norbere autonomia, auto-estimua eta besteekin harremanak izateko ahalmenaren garapena.**

2. Eskubideak:

- **Ikasleek** eskubidea dute beren **dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aitortuak eta baloratuak izan daitezen.**

3. Bere kontzientzia askatasunaren eta bere ideologia, erlijio eta etika mailako uste sendoen errespetu eskubidea.

Eskubide hau honako hauen bidez bermatuko da:

- **Ikasleei** era guztietako manipulazio ideologiko edo propaganda mailakoa saihestuko dien hezkuntza ematea.
- **Ikasleen kritika** ahalmena sustatzea.
- **Ikastetxeko eta Eskolaz Kanpoko Ekintzen Hezkuntza Proiektuari** buruzko informazioa ematea.

4. Ikasleen osotasun fisikoa, psikikoa eta morala eta bakoitzaren duintasuna errespetatuak izateko eskubidea. Inoiz ez zaie tratu umilgarri edo laidogarririk egingo.

5. Orientazioa jasotzeko eskubidea.

1.2.- ESKOLA OREKATZAILE BATEN ESKUBIDEA

1. Ondorengo arrazoiengatik ez diskriminatua izateko eskubidea, jaiotza, arraza, hizkuntza, sexua, ahalbide ekonomikoa, maila soziala, eta politika, moral edo erlijio mailako uste sendoak, edo baita ezintasun, fisiko sensorial edo psikikoak ere, elkarbizitzako araei arreta berezia jarritz.

2. Ikasleek babes sozialerako eskubidea dute, Eskolaz Kanpoko Ekintzen eremuan.

1.3.- PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

1. Ikastetxeko Eskolaz Kanpoko Ekintzen funtzionamenduan eta bertako bizitzan, eskola jardueretan eta berorren kudeaketan parte hartzeko eskubidea, indarrean dauden heziketa legeen eta geure arautegiaren arabera.

2. Ikasleek adierazpen askatasunerako eskubidea dute, desadostasun adierazpena barne, gertakari akademiko, kultural edo sozialetan. Eskubide hau, heziketa elkarteko kide guztien eskubideen kaltetan izan gabe eta pertsona eta erakunde guztiek merezi duten errespetuarekin erabili behar da.

3. **Ikasleak Ikastetxean biltzeko aukera izango dute, eskolako edo eskolaz kanpoko jardueretarako**, hauek heziketa edo prestakuntza helbururen bat baldin badute. Horretarako, dagokion baimena eskatu beharko dute.

Eskolaz Kanpoko Ekintzetan parte hartzen duten ikasleen betebeharra da jarduera hauek guztiak errespetu eta eraginkortasun giroan igarotzea.

2.- IKASLEEN BETEBEHARRAK

2.1.- GAINERAKOAK ERRESPETATZEKO BETEBEHARRA

Ikasleek, Heziketa Elkarteko gainerako kideen eskubide eta askatasunen jarduna errespetatzeko betebeharra dute.

Betebehar hori honako **eginbehar** hauetan zehazten da:

1. **Ikastetxeko eta gainontzeko ikastetxeetako Heziketa Elkartetako kide guztien kontzientzia askatasuna, ideologia, erlijio eta etika mailako uste sendoak eta baita haien duintasuna, osotasuna eta intimitatea ere errespetatu behar dira**,. Gerta litezkeen gatazken aurrean bide baketsuak bakarrik erabiliko dira, ikaskideekin beti tolerantzia eta solidaritate jarrerak mantenduko dira eta heziketa elkarteko gainerako kideen eskubideen jarduna indartuko da.
2. **Ikasleek ez dute erabiliko** ikastetxeko eta beste ikastetxeetako heziketa elkarteko gainerako kideenganako **inolako adierazpen iraingarri, mehatxuzko edo gaizki esatekorik**.
3. **Ikasleek eskolaz kanpoko edozein eremutan ezingo dute erabili grabazio bitartekorik**, ikastetxeak berak programatutako jardueren kasuetan izan ezik. Kasu hauetan ere, heziketa elkarteko kideei ezingo die ezer grabatu ez beren gogoaren kontra, ez beren onespren espresik gabe.
4. **Ikastetxeko edo beste ikastetxeetako Heziketa Elkarteko kiderik ez diskriminatu**, jaiotza tokia, arraza, sexua, ideologia, sexu-joera, hizkuntza, kultura, erlijioa edo beste ezein zirkunstantzia pertsonal edo sozialen arazoiz.
5. Ikastetxeko eta Eskolaz Kanpoko Ekintzetako **Heziketa Proiektua errespetatu**.
6. Ikastetxeak beren eskura jartzen dituen **instalakuntzak, altzariak eta materialak errespetatu eta behar bezala erabili**.
7. **Aktiboki parte hartu eta lan egin** ikasketan eta Ikastetxeko elkarbizitzaren garapen onena lortzeko.
8. Ikastetxeko eta beste ikastetxeetako **heziketa elkartetako gainerako kideen ondasunak eta beren gauzak errespetatu eta gainerako materialak baldintza**

egokietan mantendu, erabili ahal izateko. Ikasleen erantzukizuna da instalazioetan, altzarietan edo ikastetxeko materialetan, edo ikasleen gauzetan, egindako kalteak konpontzea, nahita edo utzikeria larriz eginak izan badira. Horren ordainez, beharrezko konponketen gastuen arduradun egin daitezke, gurasoak edo legezko ordezkariak hauen erantzule ordezkatzailerik.

9. **Ikastetxeko araudia orokorra bete.**
10. Ikasleek, ikastetxeak ezarritako heziketa neurri zuzentzaileetan sarturik dauden ekintzak bete behar dituzte..

2.2.- Eskolaz Kanpoko Ekintzetan PARTE HARTZEKO eta IKASTEKO BETEBEHARRA

Ikastea eta parte hartzeko konpromezua izatea, ikasleen oinarrizko betebeharra da. Ondorioz, Eskolaz Kanpoko Ekintzetan beren ahalmen pertsonalei eta ematen diren ezagutzei probetxua ateratzea eskatzen da, beren buruen garapen onena. Betebehar orokor hau ondorengo eginbeharretan zehazten da:

1. **Eskolaz Kanpoko Ekintzetara joan, egutegian erabakitako jardueretan parte hartu eta ezarritako ordutegiak errespetatu.** Ikasle bat ekintza batera sarri falta bada Eskolaz Kanpoko Arduradunen jakinean jarriko du entrenatzaile, monitore edo irakasleak.
2. **Eskolaz Kanpoko Ekintzetako irakasleak, monitoreak edo entrenatzaileak arretaz entzun eta proposatzen dituen jarduerak egin.**
3. **Monitore, entrenatzaile edo irakasleak agindutakoa egin, agindutako epean eta moduan.**
4. **Taldekiddeen jarduna errespetatu.**
5. **Solidarioa izan,** ekintza desberdinetan edo ikasgelan, denen probetxurako giroa sortzeko, geletako jokabide aztoratzaileak saihestu.

3.- ELKARBIZITZA ARAUAK

Adierazitako edozein eginbehar ez betetzea beti da, gutxienez, jokabide ezegokia, zuzendu egin beharko dena kasu guztietan, eta elkarbizitzaren aurkako jokaeratzat edo elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokaeratzat hartuko da, bere eskubideen jardunak eta eginbeharrek betetzeak heziketa elkarteko gainerako kideei eragiten dielako.

Eskolaz kanpoko Ekintzetako Ikastetxeko irakasle, monitore eta entrenatzaile guztiek, beren hezitzaile zeregina betetz, gelan edo ikastetxeko beste instalakuntzetan **egindako jokabide ezegokiak zigortu ditzakete eta zigortu behar dituzte,** zuzenean beren ardurapean daudenean, eta hitzez errieta egingo dio, unean bertan, elkarbizitzaren aurkako edo elkarbizitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren batean aurki lezakeen edozein ikasleri.

Aurrez esandakoaren kaltetan izan gabe, **zuzendariari**, edo arautegiaren arabera bere ordez dagoenari dagokio elkarbizitzaren aurkako edo **elkarbizitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren baten aurkako neurri zuzentzaileak aplikatzeko eskumena.**

Eskolaz kanpoko jardueran gertatutakoak, eskola-jardunarekin kausa-ondorio harremana frogatzen den guztietan zuzendu beharko dira.

Ikasleei, errespetuzko tratua eskatu behar zaie, heziketa elkarteko kide guztiekiko (irakasleak, entrenatzaileak, irakasleak, garbiketako langileak, mantenimenduko langileak, hizlariak,...) eta baita puntualki heziketa lanean lankide diren langile guztiekiko ere.

3.1.-PUNTUALTASUNA IKASTETXEKO HEZIKETA EKITALDIETARA ETORTZERAKOAN (Entrenamenduak, partiduak, klaseak,...).

Garrantzitsua da behartzea bere alderdi hezitzaileagatik. Puntu honetan zorrotzak izan behar dugu ikasleekin eta geure buruarekin. **Monitore, entrenatzaile eta irakasleak dira bere gelako puntualtasunaren arduradun, eta bidezko mugen barruan lortu behar du.**

- **Jokabide ezegokiak dira:**

Justifikatu gabeko puntualtasun falta.

Errepikatuak diren puntualtasun falten kasuan, monitore, entrenatzaile edo irakasleari dagokio, hasiera batean, parte hartzea.

Entrenatzaile, monitore edo irakasleak ikaslearekin eta bere familiarekin hitz egingo du, jokabide hori zuzentzen saiatzeko, neurri zuzentzaileetara iritsi baino lehen. Gaiak izaera larriagoak hartuko balitu, Eskolaz Kanpoko Arduradunei jakinaraziko zaie, eta kontsulta egingo du hartu beharreko neurriak hartzeko.

3.2.- ENTRENAMENDU, PARTIDU eta ESKOLETARA ETORTZEA.

Entrenamendu, partidu eta eskoletara etortzea eta ikastetxeak antolatutako eta/edo sustatutako ekitaldietara joateko konpromezua beharrezkoa da.

- **Jokabide ezegokiak dira:**

Entrenamendu, partidu eta eskoletara, justifikatu gabe egindako faltak.

Entrenatzaile, monitore edo irakaslea izango dira ekintzetara ez-etortzeen kontua eroango duena. Azaldu egin behar dira falten zergatiak partehartzailearen edo familiaren bidez.

3.3.- ENTRENATZAILE; MONITORE, IRAKASLE ETA IKASTETXEKO LANGILEEI ERRESPETUA.

- **Jokabide ezegokiak dira:**

- **Monitore, entrenatzaile, irakasleen edo agintari akademikoen esanak ez betetzea,** horrekin batera, mespretxu, irain edo nahita egindako diziplina ezik ez dagoenean,

eta baita beren zereginetan diharduten ikastetxeko gainerako langileen oharrei kasurik ez egitea ere.

- **Heziketa elkarteko kideen aurkako jarrera**, keinu edo begirunerik gabeko hitzak.
 - **Ikastetxeko langileei gezurra esan edo gezurrezko informazioa ematea**, heziketa elkarteko kideren bati kalte egiten ez diotenean.
- **Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:**
Eskolaz kanpoko arduradunei, irakasleei, monitorei eta entrenatzaileei egindako **desobedientzia ekintzak**, diziplinarik ezarekin edo adierazpen iraingarri, mespretxu, erronka edo mehatxuekin batera doazenean, edo baita beren zereginetan diharduten ikastetxeko gainerako langileei ere.
- Ikaskideen edo **heziketa elkarteko beste kideen aurkako mehatxu edo iraintzeko adierazpideak**, edo baita heziketa elkarteko gainerako kideen aurkako keinu edo jarrerak, zalantzarik gabe, eraso ahalegin edo mehatxu gisa uler daitezkeenean.
 - **Heziketa elkarteko edozein kideren aurkako eraso fisikoa**, ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzeko jokabidetzat har ez daitekeenean.
- **Elkarbizitza larriki kaltetzen** duten jokabidetzat hartzen dira.
- Diziplina ezaren edo obedientzia ezaren ekintza esplizituak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitearekin batera, eta baita heziketa elkarteko kideen aurka oso iraingarri edo mingarritzat hartzen diren adierazpideak ere, hitzez, idatziz edo baliabide informatiko edo ikus-entzunezkoen bidez eginak.

3.4.- KIDEEI ERRESPECTUA

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- **Bestearen ohore, intimitate eta irudiaren eskubideak ez errespetatzea**, berak aurrez berariaz adierazitako onespenerik gabe grabazio-bideak erabiliz.
- Besteari, **indarkeria fisikoa erabili gabe, berak eskubidea duen zerbait egitea eragozte**a, era berean, indarkeria erabiltzera iritsi gabe, bere borondatearen aurkako zerbait eginaraztea.
- **Jokabide ausartegiengatik arriskua sortu**, zauri fisikoak eragin ditzaketan objektuak erabiliz.
- **Diskriminazioa suposa dezakeen edozein ekintza edo jokabide**, jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera, kultura, erlijioa, sinismena, ideologia edo bakoitzak izan dezakeen beste edozein egoera edo zirkunstantzia dela bide.
- Aurrez adierazitako jokabide ezegokietako baten errepikapena, hiruhilabeteko berean hiru aldiz izateraino.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira (3.ziklotik Aurrera):

- **Heziketa elkarteko gainerako kideen aurkako eraso fisikoa, zauritzeko arrisku larriarekin.**

- **Bestearen ohore, intimitate eta irudiaren eskubideak ez errespetatzea**, berak aurrez berariaz adierazitakoaren kontra grabazio-bideak erabiliz.
- **Elkarbizitzaren aurkako diren jokabide oro**, elkartearen edo nahitako publizitatearen zirkunstantziak bat egiten badute, dela ahoz, idatziz edo informatikaren bidez, edo baita eskola-jazarpen egoeraren batean parte hartzen dutenean ere.
- **Diziplina ezaren edo obedientzia ezaren ekintza esplizituak**, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitearekin batera, beren eskumenen jardunean ari diren Ikastetxeetako gobernu organoen edo irakasleen aurrean, eta baita heziketa elkarteko kideen aurka oso iraingarri edo mingarritzat hartzen diren adierazpideak ere, hitzez, idatziz edo baliabide informatiko edo ikus-entzunezkoen bidez eginak.
- **Zauriak eragiteko** arrisku larria duten liskarrak edo jokabide erasokorrak eragitea, edo beroietan nahastea.

3.5.- IKASTETXEKO EDO IKASKIDEEN MATERIALARI ERRESPETUA.

Denok, irakasle, monitore, entrenatzaile nahiz ikasle, ardurak hartu behar ditugu zentzu honetan, ahal dugun instalakuntza eta espazio ordenatu eta txukunenak izateko geure ekarpena eginez.

- **Jokabide ezegokiak dira:**

- Ikastetxeko hornikuntza elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo beste edozein motatakoa, berariazko baimenik gabe erabiltzea.
- Ikastetxeko lokalak, bertako materialak edo heziketa elkarteko gainerako kideen objektu eta gauzak hondatzea, asmo txarrez izan gabe, zabarkeria hutsez egiten denean.

- **Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:**

- Jakinaren gainean edo erabilera okerragatik, kalteak eragin direnean, ikastetxeko lokaletan, altzarietan, materialetan edo dokumentuetan, edo heziketa elkarteko gainerako kideen gauzetan, eta ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideak ez direnean.

- **Ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:**

- Gurasoen edo tutoreen sinadurak faltsifikatzea.
- Bandalismo ekintzetan parte hartzea edo instalazioetan, ikastetxeko ondasunetan, bertako langileei, beste ikasleei edo hirugarrengoei kalteak eragitea.

3.6.- JABETZARI ERRESPETUA.

- **Jokabide ezegokiak dira:**

- Ikaskideen gauzak intentzioz erabiltzea haien gogoz kontra.

- Ikastetxeko **elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat** hartzen dira: - Objekturen bat lapurtzea.
- Ikastetxeko **elkarbizitza larriki** kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:
- Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokaera errepikatzea eta altzariak, instalazioak edo pertsonak bortxatuz objektuak lapurtzea.

3.7.- GIROA (Entrenatzaile, monitore, irakasle eta taldekideekin)

Ikastetxeko **elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat** hartzen dira:

- Gurasoentzat, legezko ordezkari entzatat edo irakasleentzat diren entrenatzaile, monitore edo irakasleen oharrak ez eramatea.
- Eskolaz Kanpoko Jardueren garapen normala aldatzen duten justifikazio gabeko ekintza indibidualak edo talde mailakoak, taldekideen ikaste eskubidea benetan oztopatzen dutenean.
- **Ikaslegoak debekatua du sakeleko telefonoa erabiltzea, beraz, ezin izango du sakeleko telefonorik erabili entrenamendu, partidu eta klase orduetan, gelan eta gune hezitzaileetan (aldagelak, klaseak,...).** Ikastetxera ekarriko balu, itzalita, aldagelan edo motxilan gordeta eduki beharko du.
- **Erabat debekatua dago ikasleentzat ikusentzuneke eta/edo tresna elektronikoak ikastetxean erabiltzea** (argazki makina, bideokamara, argazki tresnak, bideojokoak, ipod, tabletak...) bertako arduradunaren baimenik gabe (irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, entrenatzaileak, monitoreak...) **entrenamendu, klase eta partidu garaian.**
- Era berean, **erabat debekatua dago ikasle, irakasle, hezitzaile edota zerbitzuetako pertsonen irudi eta soinuen grabazioa**, irakasle baten baimenarekin ez bada, ikastetxeko edozein gunetan (aldagela, zerbitzuak, jantoki edo eraikineko beste edozein gunetan, patioak barne)

3.8.- OSASUNAREN ZAIN'TZA.

Higienearen aurkako ekintza da, gelan, korridoreetan, eskaileretan edo ikastetxeko beste lekuetan erretzea, eta beste ikaskideei kalte egin diezaike. Horregatik dago Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza sailak debekatua.

- Ikastetxeko **elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat** hartzen dira:
 - Geletan eta aldageletan janariak edo edariak kontsumitzea, edo baita ikastetxeko esparruan erretzea ere.
 - Eskolaz Kanpoko Ekintzetara, berariazko arropa ekarri beharko dute. Dutzatzea gomendatzen da.
- Ikastetxeko **elkarbizitza larriki** kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:
 - Heziketa elkarteko kideen osasunarentzat eta osotasun pertsonalarentzat oso kaltegarriak izan daitezkeen jokaeretara kitzikatzea, baita eredu eman ez ere, hala nola, tabako, alkohol eta droga kontsumoen bidez. Halaber erabat debekatuta dago

osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen sustantziak eskolako instalakuntzetan gordetzea.

- Zauriak eragiteko arrisku larria duten liskarrak edo jokabide erasokorrak eragitea, edo beroietan nahastea.

4.- EKINTZETATIK EGOZTEA.

Ahal dela ez da eskolatik (Pintura, ingelesa,...)edo entrenamenduetatik inor egotzi behar, oso muturreko kasuetan izan ezik, gainerakoentzat eragozpenak eragin ditzakeelako eta ikasle berarentzat denbora galtzea delako.

Egoztea ezinbestekoa bada, kontuan izan behar da oso zigor larria eta ezohikoa dela gelatik edo entrenamendutik egoztea, azkeneko irtenbidea dela, ez lehenbizikoa. 5 minuturako egotziz ahaleginduko da burututako jokabide ezegoki horiek zuzentzen.

Gelatik edo entrenamendutik egoztea gertatzen bada, jarduera positiboren bat edo galdutako denboraren errekupeazioa egitea proposatuko du irakasleak, entrenatzaile edo begiraleak.

Irakasleak, entrenatzaileak edo begiraleak, era berean, egoztearen arrazoiak batuko ditu. Ikasle bera hiruhilabete batean bi aldiz egotzia izango balitz Eskolaz Kanpoko Arduradunei jakinarazi behar zaie. Honek era berean familia edo hezitzaile arduradunei jakinaraziko zaie.

Hiruhilabete berean ikasle bat **hiru aldiz izan bada egotzia** praktikatzen duen jardunetik egotzia izango da egun batez. (Kirolaren kasuan partiduak jokatu gabe geratuko da ikaslea).

Egozteak behin eta berriro gertatuko balira, elkarbizitzaren aurkakotzat edo ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartuko dira.

5.- HEZIKETA-NEURRI ZUZENTZAILEAK

Ikastetxeko Heziketa Elkartearen bizitza ez dago irizpide arauzale baten bidez markatua, baizik elkarbizitzak, elkarrekiko konfiantzak eta laguntasun giroak izan behar dute nagusi. Nola nahi ere, ikastetxea, indarrean dagoen legeriaren menpe dago eta, beraz, ekintza zuzentzaileak aipatutako dekretuan adierazitakoaren arabera aplikatuko dira.

Jokabide ezegokiak irakasleek, entrenatzaileek eta tutoreek zuzenduko dituzte, ikaslearen pertsonarekiko errespetuzko eta laguntzeko harreman positiboa mantenduz beti ere, ondorengo neurri hauetakoren bat edo gehiagoren bidez:

- **Jokabide ezegoki zehatzaren** eta bere ondorioen inguruko **gogoeta**.
- **Jokabide ezegokiaren aitortza**, horren ondorioz kaltetuak izan daitezkeen pertsonen aurrean.
- **Ikasketa jarduerak egitea eta jokabide zuzenaren bideak barneratzea.**
- **Hondatutako materiala ordezkatzeta** edo konpontzea.

- **Jokabide ezegokiarekin lotura duen eskolako lanen bat egitea**

Elkarbizitzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak, ondorengo jokabide hauetakoren bat edo batzuk erabil ditzake:

- Elkarbizitzaren aurkako jokabide zehatzaren eta bere ondorioei buruzko gogoeta, eta zuzentzeko orientabideak.
- Idatzizko ohartarazpena, bertan, entrenatzaileen, begiraleen edo, bere kasuan, irakaslearen txosten zehatza sartuko delarik.
- Ohartarazpena gurasoen edo legezko ordezkarien aurrean.
- **Ikaslea taldez** (Eskola Kirolean posible bada, aztertze gaia) edo gelaz **aldatzea**, aldi baterako edo behin betirako.
- **Heziketa lanak, edo eragindako kalte materialen konponketako lanak egitea**, edo, behar balitz, ikastetxeko jardueren hobekuntza eta garapen lanak, lan hauek elkarbizitzaren aurkako jokaerarekin zerikusia duten neurrian.
- **Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubiderik gabe uztea**, ez hiruhilabetekoaren amaierara arte baino gehiago. (Entrenamendu edo partiduetan parte hartzeko aukerarik ez izatea)
- Eskolaz kanpo izango diren **jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubiderik gabe uztea**, ez hiruhilabetekoa baino gehiago.
- Eskola jardueran eta Eskolaz kanpoko ekintzetan, **mugikorren erabilpen desegokiagatik proposatzen diren neurri zuzentzaileak eta prebentiboak:**
 - a- Kurtsuaren hasieran, teknologia berrien erabilera egokiaren inguruko hausnarketa burutu eta IKT-en erabilera arduratsuko jarrerak sustatzeko, erabiliko da.
(sakelekoen inguruko araudi bertan azaldu)
 - b. Hezitzaile (Entrenatzaile, irakasle, begirale) batek ikaslea **baimenik gabe sakeleko telefonoa zein beste tresna elektroniko bat erabiltzen ari dela erreparatuko balu:**
- **Lehen aldiz bada**, hezitzaileak telefonoa kendu egingo dio eta ekintza amaitzean bueltatuko zaio, berriz ere araudia azaldu ondoren.
- **Bigarren aldiz bada**, hezitzaileak telefonoa kenduko dio (Itzali egingo da) eta eskolaz kanpoko arduradunen esku utziko du. Kasu honetan Eskolaz Kanpoko Arduradunak gordeko du tresna. Halaber, gertatutakoa gurasoei jakinaraziko zaie, eta hauek mugikorra batzera hurbilduko dira ikastetxera. Gurasoei ere araudiaren berri eman.
- **Hirugarrenez bada**, hezitzaileak telefonoa kenduko dio eta Eskolaz Kanpoko Arduradunaren esku utziko du. Azken honek koordinatzaileari utziko dio gailua. Koordinatzaileak familiari deitu eta indarrean dagoen araudia aplikatuko litzateke ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidetzat hartuz.

Kasu guztietan ere beharrezkoa izango da ikaslearen alde aurreko entzunaldia. Ikastetxeko jardueretan parte hartzeko eskubiderik gabe uzten denean, beharrezkoa izango da gurasoen edo legezko ordezkarien entzunaldia ere.

Ikastetxean elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideak.

Zuzendariak zuzen ditzake aurreko puntuak jasotzen diren puntuetako bat edo gehiagoren bidez, eta baita ondorengo beste hauetako edozein erabiliz ere:

- c) Heziketa lanak, edo eskolako jarduerak hobetzeko edo garatzeko izan daitezkeenak, edo eragindako kalte materialak konpontzeko lanak eskola-orduz kanpo egitea.
- d) Ikastetxez kanpoko eskolaz kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko, edo zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko eskubiderik gabe uztea, ikasturtea amaitu bitartean ere iraun dezakeelarik.

Ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokabidea, **ikastetxeko irakasle, begirale edo entrenatzaile baten aurkako bortxa edo erasoa denean**, zuzenean proposa daiteke aipatutako aldaketa, ikaslea aurrez zuzendu beharrean izan ez bada ere. **Heziketa administrazioak erabakiko du gertakarien aurrean zer egin behar den.**

Neurri hauek hartzeko orduan, ikaslearen jokabidean eragina izan dezaketen zirkunstantzia pertsonal eta sozial guztiak hartu behar dira aintzat irakasleei edo zuzendariari, bere eginbeharrak betetzearen garrantzia behar bezala ulertu eta baloratzeko balio diezaieten.

Hartu beharko diren gainerako izapide eta neurrietan, eta arautegi honetan jaso ez direnetan, Eusko Jaurlaritzak momentuan indarrean duen , ikasleen eskubide eta betebeharren dekretura joko dugu.

Jokabidearen neurri zuzentzaileak ezarri behar direnean, aintzat hartu beharko dira, bai heziketa elkarteko gainerako kideen eskubideen jardunean eta betebeharrak betetzerakoan duen eragin maila, bai ikaslearen jokaeran eragina izan dezaketen zirkunstantzia pertsonalak eta sozialak, ikastetxeko irakasleei eta zuzendariari, 3. artikuluan adierazitako oinarritzko ahalmenetan, bere eginbeharren ez-betetzea eta hutsegiteak behar bezala baloratu ahal izateko balio diezaieten. Aintzat hartu beharko dira, halaber, jokaera gertatu deneko zirkunstantziak zein neurritan aldarazi izan dezaketen ikaslearen erantzukizuna.

Ikasturte hasieran, Ikastetxeek erabakitzen duten modurik egokienean, Dekretu honetako edukia, eta baita Antolaketa eta Funtzionamendu Arautegian edo Ikastetxeko Barne Arautegian datozen elkarbizitza arauak ere, ezagutzera eman edo gogorarazi egingo dizkiete ikasleei (Tuoreen eskutik eta Eskolaz Kanpoko Arduradunen eskutik), gurasoei edo legezko ordezkariari, zuzenduak izan behar duten jokaerak, heziketa elkarre osoak ezagutu ditzan (Ikastetxeko WEB orrian jarriko dira).

6.- ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAN ALDAGELEN ERABILERA

Ohiturak eskuratzeko orduan familia dela arduradun nagusia ahaztu gabe, ikasleek, zuzentasuna mantenduko dute, beren portaeran eta aldagelen erabileran.

Aldagelen erabileraren oinarritzko arauak betetzen ez direnean, araudi honetan batzen diren heziketa neurri zuzentzaileak ezarriko dira.

Ikastetxeko hezitzaile guztiek, beren zeregina beteaz, ikasgelan edo Ikastetxeko instalakuntzetan beren zuzeneko zaintzapean daudenean egindako jokabide ezegokian neurriak hartuko dituzte, baina euren zaintzapean ez daudenean ere, hitzez errieta egiteko eskumena eta beharra daukate , unean bertan, elkarbizitzaren aurkako edo elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokabideren aurrean.

Aldagelak ikastetxeko beste guneak bezala gune hezitzailea dira eta ondorioz errespetuz jokatu behar da espazio honetan. Horretarako, erabilera egokia emateko asmoz eta elkarbitza arauak bete daitezcan erabilpen arautegi hau jasotzen da:

1. Aldagelen erabilpenerako denbora: □ Aldagelen erabilpenerako denborak honako hauek izango dira:

- Entrenamendua hasi baino 15 minutu lehenago bajatuko dira ikasleak aldageletara.
- Entrenamendua amaitu ondoren 15 minutuko denbora izango dute ikasleek aldageletatik ateratzeko.
- Taldeko entrenatzaileak edo delegatuak izango dira arau hau betetzea bermatuko dutenak.
- Denbora hauek ez betetzeak jokabide desegoki lez batuko dira.

2. Erabiltzaileek aldagelen erabilera egokia egin behar dute eta bertatik ateratzean baldintza egokietan utzi behar dituzte:

- Aldagela, jantziak aldatzeko eta norberaren garbitasunerako soilik erabiliko da.
- Erabiltzaileak aldagelak batuta eta txukun utziko ditu.
- Aldagelak garbi mantendu behar dira (Zakarrontziak erabiliz)
- Dutzak eta komunak dituzten erabilpenetarako erabiliko dira.
- Aldageletako takilak erabiliz gero, hutsik utzi behar dira.

3. Erabilera egokia izan daiten ez dira honako ondorengo jarrera edo ekintza hauek onartzen:

- Aldageletan mugikorrak erabiltzea, ondorioz, argazki eta grabazioak egitea.
- Aldageletan beirazko ontziak sartzea, apurtu ezkerro arriskutsua gerta daitekeelako.
- Aldageletan jolastea, arineketan aritzea,.... Aldagelak dutxa eta jantzi aldaketarako erabiliko dira.
- Aldagela barruan jatea edo erretzea.
- Aldageletako takilak egun batetik bestera gordetzea. (Egunero hutsik utzi behar dira)
- Beste sexuko pertsonen aldagelak erabiltzea eta bertara sartzea.

4. Funtzionamendu egokirako beste argibide batzuk:

- Mutilentzako lau aldagela daude eta kopuru bera neskentzat. Eskolaz kanpoko arduradunen aldetik beste komunikaziorik ez badago sexu banaketa horrekin erabiliko dira. (Momentu berezietan sexu erabilpen aldaketak egin daitezke)
- Aldagelak elkarbanatu egin daitezke talde desberdinen artean. (Adibidez: 15 pertsonako kirol talde batek beste talde batentzat espazioa eskura utzi behar du).

- Eskolaz Kanpoko ekintzetan galdutako gauzak 30 egunez gordeko dira ikastetxeko objektu galduen gelan. (Gela honen gestioa mantentzen taldeko pertsona da)
- Takilen erabilpena egokia izan behar da erabiltzaileen aldetik. Ikastetxea ez da arduratzen takiletan utzitako objektuez.
- Instalazioetako langileek, irakasleek, entrenatzaileek, delegatuek,... portaera txarra duten ikasle edo pertsonak ohartarazteko edo instalazioetatik kanporatzeko ahalmena dute. Hau gertatzean, instalazioetan dagoen arduradunari jakinarazi behar zaio. (Eskolaz Kanpoko Arduraduna edo mantentzen arduradun)
- Arauak ez betetzeak edo jarrera desagokiak izateak Eskolaz Kanpoko Arautegia aplikatzea ekarriko du ondorio bezala.
- Arautegi hau ikastetxeko WEB orrian jarriko da ikasle, ikasleen familia eta aldagelen erabiltzaile guztien esku. Arautegia ez ezagutzeak ez du esan nahi, erabiltzaileak bete behar ez duenik.

Aldagelen arautegi hau, Eskolaz Kanpoko Ekintzetan, Kirol arloan, parte hartzen duten ikasleei jakinaraziko zaie.

***Eskolaz Kanpoko Arautegi hau Ikastetxeko arautegiaren adaptazioa izanik berekin lotura zuzena du aplikatzerako garaian.** Hartu beharreko neurri zuzentzaileak Eskolaz Kanpoko Ekintzen kooordinaziotik, Koordinazio Pedagogikotik, tutoreen eskutik edota zuzendariaren eskutik etorri daitezke.

*Ziberjazarpen eta jazarpen kasuak gertatuko balira, eskolako arautegira joko genuke. Bertan adierazten den moduan, kasu bi hauek eman ezker, Jaurritzaren protokoloa martxan jarriko litzateke.

Hasieran esan dugun bezala, **Etapako araudi orokor hau 201/2018 ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretuarekin batera ulertu behar da**, eta beronen aplikazioan edozein zalantza agertuko balitz dekretura joko genuke argibide bila, azken hau baita, gure elkarbizitza planarekin batera, erreferentzia nagusia.

Honekin batera badira **Hezkuntza Sailak ikasleen oinarriko eskubideak bermatzeko burutu dituen prokolo eta jarraipideak**, horiek denak **ikastetxean aplikatuko dira egoerak eskatuta edota edo ikasleen babes falta antzemango bagenu:**

- Eskola jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida (2015)*
- Eskola jazarpen egoeretan jarduteko protokoloa aplikatzeko jarraipideak (2019)*
- Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabatasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexuabusu egoerarako (2016)*
- Ziberbullying kasuetan ikastetxeetan jarduteko protokoloa (2011)*

- e) *Ikastetxeentzako protokoloa, ikasle transexualei edo arautik kanpoko genero-portaera duten ikasleei eta haien familiei laguntzeko. (2016)*

Jarraipide hauek guztiak helburu argia dute: ikastetxea elkarbizitza positiboko gune seguru eta inolako jazarpen-egoerarik gabekoa bihurtzea, eta ikasle guztiei beren garapen personal aske eta osorako laguntza ematea. **Elkarbizitza karpetan daude gordeta, dokumentu honetan agertzen den etapako araudiarekin batera.**